

Sagardoa bor-bor dago

Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalak lankidetzan hasi dira. Ondorioz, **'Sagardoaren Lurraldea'** markak eta **Sagardoetxeak** indar gehiago izango dute

Usurbilen sagardotegi komertzial gutxiago dago, baina 20 bat baserrian egiten dute sagardoa. Alde horretatik markako herria da

Bihar Estatu Batuetako sagardoak emango dituzte probatzera Zapiainen, bertako semeak ekarritakoak



LAUBIDE

**FELIX
IBARGUTXI**

Lehengo asteko argazkia: Astigarragako, Hernaniko eta Usurbilgo alkateak batera, irribarretsu, eskuian edalontzi bana. Hiru udalok hitzarmena sinatu dute sagardoaren kultura sustatzearren baterago jokatzeko.

Akordioa, diruz, ez da munta handikoa. Baina simbolismo handia dauka. Izan ere, orain arte bakoitza bere kasa ibili dira hirur udal hauek. Praktikan zer gertatu da? **Sagardoaren Lurraldea** izeneko marka kultural eta turistikoa indartu egin dela. Orain arte, Astigarragako Udala baino ez zegoen Sagardoaren Lurraldean, eta hemendik aurrera ere bera egongo da bakarrik, baina aldamenean beste bi udal horiek izango ditu laguntzaile. Zehatzago esanda, Hernani eta Usurbil parte hartzen hasiko dira Sagardoaren Lurraldearen egitasmo sonatuean: **Sagardoetxea museoan**. Eta, epe motzean, Sagardoaren ibilbide bana diseinatuko da beste bi herri horietan, orain Astigarragan -Santiagomendi aldean- dagoenaren antzekoa.

Ez dakienarentzat, esplikatzeko ez da erraza. Sagardoaren Lurraldea markaren oinarrian, partzuergo bat dago, konsortzio bat, **Sagardun** izeneko, 2003an jaioa. Hauek dira horko kideak: udal bat (Astigarraga), hamabost sagardotegi (hamaika Astigarragako eta bana Hernaniko, Andoaingo, Usurbilgo eta Azkaingoak), eta Astigarragako zazpi kultur eta kirol-elkarte.

Esan bezala, 2003an elkartu ziren eragile horiek. Ikusten zuten sagardoaren atzetik balio historiko bat zegoela, kultura bat, eta ekonomia eta turismo aldetik gaitasun handia zeukala eskualde horrek.

Handik hiru urtera, 2006an etorri zen lehen lortu handia: martxan jarri zen **Sagardoetxea** izeneko museoa, eta aldamenean **sagasti pedagogikoa**. Baita ere, isilki, zaratarik gabe, dokumentazio-zentroa joan zen gorpuzten.

Astigarragako Udala axkar-axkar ibili zen. Garai hartan Hernaniko Udala ere saiatu zen museoa muntatzeko, SagardoGunea izena izango zuena, baina ez zuen Jaurilaritza eta Foru Aldundian babesik lortu, eta aparkatuta gelditu zen. Villa Maria-n zen gauzatzeko



Hirurak bat. Gartzia (Astigarraga), Intxauspe (Hernani) eta Aizpurua (Usurbil) alkateak.



Chicagon. Zapiain (hirugarrena), Cider Conferencen.

Hernaniko egitasmo hura. Astigarragak eraikin txiki eta apal batean -solairu bakarrekoa- eraiki zuen Sagardoetxea 2006an. Lehengo kultur etxearen aldamenean eraiki ere. Modu probisionalean egin zen museoa, eta ametsa beti izan zen eraikin handiago bat egitea, hartara «gauza handiak» ere sartu ahal izateko, adibidez **Erbetegi Etxeberriko** dolare zaharra. Baserri hori Donostiako Amara auzoko bukaera-bukaera zegoen, eta Uru-meako sailhesbidea egitean bota egin zuten. 2008an eraitsi zuten eta, lehentxeago, despedida moduan, txalaparta-festa handia egin zen bertan -tartean, **Joxan Artze** eta bertako seme **Simon Goikoetxea**-. Han bizi izan baitziren **Asentsio** eta **Ramón Goikoetxea** txalapartari historikoak. Esan bezala, dolare zaharra -pieza denak banan-banan askatuta- pabilio batean dago gordeta. Sagardoetxe berria noiz egiten den zain. Museo hori handitzeko proiektua hor dago mahai gainean, baina gauzak ez dira errazak. Hasteko, lursailaren zati bat Elizarena da eta erakunde horrek ere bere

baldintzak ipintzen ditu.

Sagardoetxeak beti eduki du alde gauza bat: Donostiatik oso gertu dagoela. Iaz 11.000 bisita izan zituen, baina potentziala askoz handiagoa da, noski.

Hernanin sagasti gehien

Estatistikei begiratu bat emanda: Astigarragan 20 sagardotegi daude, Hernanin 13, Usurbilen 8. Sagardo gehien Astigarragan egiten da, baina sagarondo gehiago daude Hernanin. Foru Aldundiak errolda egin zuen 1991n, eta zenbaki hauek ateratzen ziren: Hernanin, 561.500 metro koadro sagastiak zeuden, guztira 140 sagasti eta 16.382 sagarondo. Astigarragak, berriz, 468.700 metro koadro zituen, 80 sagasti eta 12.092 sagarondo. Eta Usurbilek, 186.000 metro koadro, 69 sagasti eta 6.564 sagarondo. Bistan da harrezkero sagarondo pila bat landatu dela Gipuzkoan eta hirur herriotako zenbakiak asko gizen-duko zirela.

Bakoitzari berea: Usurbi-

len, 35 bat baserrian dago dolare, eta hogeikoren batean egiten dute sagardoa, etxerako eta laguntzat. Hori marka handia da. Bestalde, beste herrietan ez bezala, nekazarien garai bateko kooperatiba ez zen desagertu; areago, **Alkartasuna** kooperatiba indartsu dago eta oso murgildua sagardo-konfuetan. Usurbilek badiu sagardoaren bultzatzaile eta dibulgatzaile nabarmen bat: **Jagoba Errekondo**.

Hernanin, berriz, **Kofradia** dago. Eta igande honetanxe lau lagun gehiago izendatuko ditu ohorezko kide, tartean **Ainhoa Arteta** sopranoa.

Estatu Batuetan ere badakite egiten

Bihar dastaketa oso berezia egingo da Astigarragako **Zapiain sagardotegian**: Estatu Batuetako sagardoak emango dituzte probatzera. Hain zuzen ere, **Egoitzek** berak handik ekarritako batzuk ezagutu ahal izango dira; izan ere, lehengo otsail hasieran Chicagon izan zen, **Cider Conference** delakoan. «Ikastera joan nintzen -adierazi dit sagardogile gazteak- 650 laguneko bilkura izan zen eta euskal sagardoak hitz egin nien. Han oso sagardo desberdinak egiten dituzte, baina onak. Baten batek esango du hori ez dela sagardoa, sagardoa gurea dela; betikoa...»

Dastatuko diren sagardoak **Vandermill**, **Farnum Hill Ciders** eta **Uncle Johns Cider Mill** dira. Ingalaterrako batzuk ere emango dituzte probatzera.

fibargutxi@diariovasco.com